

¡No más juicios políticos!

Recientemente han comenzado en Madrid sendos juicios contra un grupo de 40 jóvenes acusados por su trabajo en SEGI y contra otro grupo entre quienes se encuentran buena parte de quienes fueron miembros de la Mesa Nacional de Herri Batasuna, Batasuna y destacados dirigentes de Euskal Herritarrok.

Se trata de procesos soportados en especulaciones para conseguir el estigma social y la condena de aquellos a los que se considera enemigos del estado. Sobre esas personas no se ha podido establecer ningún hecho concreto que establezca la vinculación ni la colaboración con ETA. Y por ello, se recupera la tesis de un “entorno”, de un espacio ideológico o cultural, algo absolutamente inespecífico y ajeno a derecho. A este disparate hay que unir la pretensión de que los informes policiales se conviertan automáticamente en pruebas contra los acusados.

Destacados juristas de nuestro pueblo, además de otras personalidades, nos advierten de que en concreto el sumario 35/02 (llamado de las “Herriko Tabernak”) es una causa abusiva. Es un disparate que sólo se entiende desde lo que se conoce como 'Derecho Penal del Enemigo': se decide castigar a alguien no por lo que ha hecho, sino porque se ha considerado que esa persona es peligrosa, aunque no haya hecho nada. Esto vulnera las libertades fundamentales de esas personas, así como el pluralismo político, ya que hablamos de un proceso contra fuerzas políticas que fueron finalmente ilegalizadas. En consecuencia, para los sindicatos firmantes de este escrito, por lo tanto, este proceso nunca debió iniciarse, y menos aún llegar a juicio.

Debemos recordar que en la instrucción de este caso se han cometido además muchas irregularidades, arbitrariedades y excesos: detenciones innecesarias, incomunicaciones generalizadas e injustificadas, privaciones de libertad sin causa alguna relacionada con cada persona, fianzas millonarias, medidas de control como cuentas corrientes bloqueadas, limitación

de salida del territorio del Estado, obligación de firmar periódicamente, informes tendenciosos... Y todo esto además durante más de 10 años... Las personas que van a ser juzgadas eran, por otra parte, militantes de organizaciones legales cuando fueron incluidas en la instrucción.

Debemos recordar, finalmente, que estos juicios se van a realizar en un momento histórico concreto. Una comisión internacional –junto con agentes sindicales, patronales y políticos y la Iglesia católica– dan por verificada la finalización de la actividad armada de ETA. A su vez, las organizaciones y partidos políticos desde los que la Izquierda Abertzale interviene políticamente se colocan al margen de cualquier procedimiento no democrático, rechazando cualquier vulneración básica de los derechos humanos. Hay que remarcar asimismo la labor de muchas de las personas encausadas, que ha contribuido a un cambio de escenario, sin lucha armada, que coloca a la sociedad vasca en una nueva fase histórica.

Por todo ello, consideramos que estos sumarios y juicios son un proceso político, y un ataque a todas y todos los que en la sociedad vasca buscan construir espacios de convivencia con respeto al pluralismo. Por esa razón exigimos:

- **Que no se celebren más juicios políticos**
- **Que sean sobreseídos todos los juicios basados en instrucciones judiciales arbitrarias**
- **Que desaparezca de los procesos judiciales la aplicación del derecho penal del enemigo**
- **Que se respeten de manera incondicional el pluralismo político y los derechos fundamentales de asociación, libertad ideológica y de expresión**
- **Que se sienten unas bases sólidas de convivencia democrática**

Epaiketa politikorik ez!

Madrilen bi epaiketa hasi berri dira, bata SEGIn lan egitea egozten zaien 40 gazteren aurka, eta bestea Herri Batasunako Mahai Nazionaleko, Batasunako eta Euskal Herritarrok koalizioko zuzendaritzako kideen aurka.

Auzibide hauen oinarria espekulazioak dira, eta hauen xedea, berriz, estatuaren etsaitzat hartu dituzten pertsonen estigma sozial bat leporatzea, gero zigortzeko. Pertsona hauen inguruan ezin izan da egintza konkretu bat ere erabaki ETArekiko lotura edo lankidetzaren frogatze aldera. Horrenbestez, “ingurune”aren tesia berreskuratu dute, hots, espazio ideologiko edo kulturalarena: kontu guztiz lausoa eta zuzenbidearekin zerikusirik ez duena. Astakeria honi beste bat gehitu behar zaio, txosten polizialak akusatuen aurkako froga automatiko bihurtzea alegia.

Gure herriko jurista ezagunek eta beste hainbat pertsona ospetsuk ohartarazi dute hain zuzen 35/02 sumarioa (“herriko tabernen” auzibide deitu dutena) abusuzko kausa bat dela. Honelako astakeria bat “Etsaiaren Zuzenbide Penala”ren baitan besterik ezin da kokatu: norbait zigortzea erabakitzen da ez egin duena medio, pertsona hori arriskutsua dela uste delako baizik, ezer egin ez badu ere. Horrek pertsona horien oinarritzko askatasunak urratzen ditu, baita pluralismo politikoa ere; izan ere, prozesu hura azkenean ilegalizatu egin zituzten indar politikoek pairatu baitzuten. Beraz, sinatzen dugun sindikatuon iritziz prozesu hau ez zen sekula hasi behar izango, eta are gutxiago epaiketa fasera iritsi.

Gogoratu beharra dago, gainera, kasu honen instrukzioan zenbat oker, arbitrariedade eta gehiegikeria egin den: beharrezkoak ez ziren atxiloketak, justifikaziorik gabeko inkomunikazio egoera orokorrak, pertsona bakoitzari zegokion arrazoirik gabeko atxiloketak, fiantzatan xahutu diren dirutzak, kontrol

neurriak (kontu korrante blokeatuak, estatutik irteteko mugak, aldian-aldian sinatu beharra), txosten tendentziosoak... Hau guztia, gainera, 10 urtetik gora luzatu da. Auziperatutako pertsonak, bestalde, legezko erakundeetako militante ziren instrukzioan sartu zituztenean.

Azkenik, gogoratu beharrekoa da epaiketa hauek une historiko jakin batean egingo direla. Nazioarteko batzorde batek –gehi hainbat eragile sindikal, patronal eta politikok eta Eliza katolikoak– egiaztatu egin dute ETaren jardura armatua amaitu dela. Halaber, Ezker Abertzaleak jarduteko dituen erakunde eta alderdi politikoek demokratikoa ez den prozedura oro baztertu dute, eta giza-eskubideen funtsezko urraketa guztiak arbuatzen dituzte. Gainera, nabarmendu egin behar da auziperatu askoren lana, zeinari esker agertokia aldatu egin baita; dagoeneko borroka armaturik ez da, eta euskal gizartea aro historiko berri batean sartu da.

Horregatik, gure ustez sumario eta auzibideok guztiok prozesu politiko bat dira, eta eraso egiten diete euskal jendartearen pluralismoa errespetatuko duten bizikidetzaren esparruak eraiki nahi duten guztiei. Horregatik, honakoa exijitzen dugu:

- **Beste epaiketa politikorik ez izatea**
- **Instrukzio judizial arbitrarioetan oinarria duten auzibide guztiak bertan behera geratzea**
- **Prozesu judizialetan bazter dadila etsaiaren zuzenbide penala aplikatzeko joera**
- **Errespetatu daitezela, baldintzarik gabe, pluralismo politikoa eta elkartzeko, askatasun ideologikoa izateko eta adierazteko oinarritzko eskubideak**
- **Bizikidetzaren demokratikotasunaren oinarri sendoak ezartzea**